

KANALAK:

Gure produktua eta zerbitzuak bezeroengana helarazteko hainbat kanal erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, sare sozialak erabiliko ditugu gure aplikazioaren eta tokiko merkataritzaren inguruko edukia partekatzeko. Guk egindako aplikazioa izango da gure plataforma nagusia, eta bertan promozioak, denden aurkezpenak, erosketak egiteko rutak eta bezeroentzako ekitaldien informazioa partekatuko dugu.

Bigarrenik, email marketina ere baliatuko dugu. Gure aplikazioan izena ematen duten erabiltzaileei hileroko buletin informatibo bat bidaliko diegu, berrietasunak, eskaintzak eta fidelizazio-programaren onurak gogorarazteko.

Hirugarrenik, tokiko komunikabideekin lankidetzan arituko gara. Euskal Herriko irratia eta telebistetan iragarki laburrak jarriko ditugu, baita tokiko egunkarietan ere. Horrela, gure mezua zabaltzeko eta ikusgarritasuna handitzeko aukera izango dugu. Horrez gain, kale ekintzak antolatuko ditugu, hala nola azoka bereziak edo sustapen-ekitaldiak, non jendeak gure proiektua ezagutzeko aukera izango duen.

Azkenik, ahaztu gabe, ahoz ahoko marketinga izango da gure aliatu onena. Bezeroek izandako esperientzia positiboak beste pertsona batzuei kontatuz, pixkanaka gure komunitatea handitzen joango gara. Halaber, aplikazioaren bidez erraz eskaintza eta promozio pertsonalizatuak helaraziko dizkiegu erabiltzaileei, denda txikien eskaintza guztien berri izan dezaten.